



ARTZINIEGA KO UDALA

AKTA

Saioa: Ezohiko osoko bilkura

Eguna: 2018ko martxoak 7

Ordua: 19:05 – 20:00

Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela

Bertaratuak:

Iñigo Gomez Unzueta

Inmaculada Vivanco Retes

Maria Lorente Burgos

Miren Izaskun Perez Barragan

Joseba Mirena Vivanco Retes

Alazne Lafragua Ureta

Arkaitz San Jose Martinez

Unai Gotxi Kastrexana

Joseba Elejalde Ribacoba, ez da bertaratu, aurretiaz arrazoia azaldu ondoren.

M^a Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 19:05etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

1.- 2018ko otsailaren 8an egindako saioko zirriborro-akta onartzea, hala badagokio.

Alkatea: Baduzue ezer esateko?

Alazne Lafragua Ureta: bai, 18. orrialdean Aintzane Lafragua ipintzen duela Alazne ipini beharrean. Hura nire ahizpa da.

Alkatea: beno, orduan bozkatu egingo dugu.

Bozkatu egin da:



Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4);

Onartuta geratu da.

2.- Martxoaren 8arekin lotutako Adierazpen Instituzionala.

“2018KO MARTXOAREN 8RAKO ADIERAZPEN PROPOSAMENA

Zer gertatzen da emakumeek ez badute zaintzen, ez kontsumitzen, ez lan egiten, ezta parte hartzen ere?

Hausnarketa horrexek eraginda, iaz mugimendu feministak emakumeen nazioarteko greba-deialdi bat egitea erabaki zuen, non eta 70 herrialde baino gehiagotan; aurten, 2018an, “Emakumeok planto. Nosotras paramos” leloaren pean errepikatuko da. Grebaren xedea da emakumeen lanak gure gizartean duen inpaktua ikusaraztea eta lan hori aintzat har dadila eskatzea.

Gure gizartearen ongizatea ezinezkoa litzateke bizitzari eusteko ezinbesteko jarduerak egingo ez balira, hala nola, pertsonak zaindu (haurrak, adinekoak, mendekoak...) edo etxeke lanak egin. Lan horietako gehienek ez dute ordainsaririk, eta batez ere emakumeek egiten dituzte. Emakumeen ekarpenik gabe, gizartea geratu egingo litzateke.

Emakumeen lanaren zatirik handiena ez da ikusten eta ez da kontabilizatzen. Horrek esan nahi du etxeetan ekoiztiko ondasunen eta aberastasunaren balioa gutxietsi egiten dela, nagusiki emakumeek egiten dituzten zeregin hauen orduak eta ekarpen ekonomikoa ukatu eta ikusezin bihurtzen direla, eta zeregin horiek zaintza, osasun, giza eta babes arloari egiten dioten aurrezpen sozial handia ere ikusezin bihurtzen dela.

Lan-merkatuaren barruan eta kanpoan eskainitako orduak kontuan izanez gero, emakumeek gure gizarteko lanaren % 56 egiten dute, baina baita ordainsaririk gabeko lanaren % 74 ere. Gainera, feminizatutako lan asko, batez ere emakumeek egiten dituzten lan asko, enplegu prekarizatukoak dira edo lan-merkatuko ezkutuko ekonomiakoak. Sektore horretan, gainera, migratutako emakume ugari enplegatzen dira, eta beroriek jatorrizko inguruneetan beren haurrak beste emakume batzuen zaintzapean utzi behar izan dituzte; hala, zaintza-kate globalak sortzen dira.

Eta egiten dituzten zeregin ez harantzagoko kontua da; izan ere, emakumeek zaintzan eta etxeke lanetan igarotzen duten denboraren ondorioz, gizonen denbora gehiago dute beren karrera profesionala eta lan-munduko karrera garatzeko, edo aisiako edozein jarduera sozial egiteko, emakumeek jarduera horietan sartzeko zailtasunak izan arren.



Denboraren erabilera desberdin hau traba handia da berdintasuna lortzeko, eta gizon eta emakumei buruzko estereotipoak betikotzeaz gain, generoaren ondoriozko erantzukizunak uztartzeko egiturazko oztopo ere bada, besteak beste.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da gizarteak aitortzea zaintza-lana ezinbestekoa dela bizitzaren iraunkortasunerako; zaintzen inguruko jendarte mailako antolakuntza berri bat babestu beharra dago zeregin hori beste modu batera hornitzeko, gizonen erantzunkidetasuna sustatu beharra dago, gizartea antolatze modu honen ondorioz erabakimen- eta botere-guneetan emakumeen talentuaren galera dagoela ikusarazi behar da, antolakuntza- eta enpresa-kultura berdintasunarekin lerrokatu behar dira, eta bizitza pertsonalaren eta laneko bizitzaren kontziliazioa sustatuko duten zerbitzu publikoak indartu behar dira.

Egoera honetaz OHARTZEN DENEZ, Artziniegako Udalak hurrengo ekintzak burutzeko konpromisoa hartzen du, guztiak 2018. urterako bere berdintasun-planean jaso eta zehaztuak.

- Sentsibilizazio eta trebakuntza-programak garatuko dituela, zaintzan eta etxeko lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko eta erabakitze guneak emakumeekin partekatze.*

- Bere eskumenen alorrean lagunduko duela zaintza babesteko baliabideak eta zerbitzu publikoak garatu eta finkatu daitezen, eta zaintzen arloan erantzunkidetasun sozialerako komunitateko estrategien artikulazioa sustatu dadin.*

- Udaleko politikak genero-ikuspegiarekin garatuko dituela.*

- Balioen transmisioa azpimarratuko duela, berdintasunezko gizartea lortzeko kultura-aldaketak susta daitezen.*

Azkenik, Artziniegako Udalak bat egingo du martxoaren 8arekin lotuta antolatu eta deituko diren ekitaldi eta ekintza guztiekin eta dei egiten die Artziniegako herritarrei Emakumeok Planto kanpainaren barnean Aiaraldea mugimendu feministak antolatutako ekintzetan modu aktiboan parte har dezaten, horrekin batera 70 herrialde baino gehiagotan deitutako Emakumeen Nazioarteko Greba deialdiarekin ere bat eginez.”

Alkatea: hori da adierazpenaren testua. Zerbait esan nahi baduzue.

Alazne Lafragua Ureta: bai, gu mozioarekin ados gaudela eta aldeko botoa emango dugula, baina gainera biharko grebarako babesa barneratu izana garrantzitsua iruditu zaigu. Eta hemendik, ea guztiok animatzen garen, bihar hemen ere mobilizazioak baitaude, eta Artziniegatik ere babesa eman diezaigun guzti honi.

Inmaculada Vivanco Retes: nik testu bat irakurriko dut, aurrez, azaroan ere baliatu nuen Estibaliz Ruiz de Azua kazetariaren zutabea, izan ere, uste dut oso ongi laburbiltzen duela ideia honen ideia:

“Geldi dezagun mundua

ADIERAZTEN da gatazkak ebazteko eskuliburuetan arazo bati irtenbide bat emateko lehen urratsa arazo bat dugula onartzea dela. Adierazten denez, eginkizunean murgildurik, bigarren urrats bat ematea onuragarri izaten dela: irtenbidea eman nahi izatea. Publikoki entzun izan dut eta pribatuki esan didate. Baina, zer nahi duzue, dagoeneko dena lortu duzue eta, dagoeneko berdinak zarete eta, guk adina eskubide dituzue dagoeneko eta? Erantzuna hain da agerikoa ezen azaltzea kostatu egiten baita.

Dena, dena nahi dugu. Aukera berdinak nahi ditugu, berdin kobratu nahi dugu lan berdina egiteagatik. Amatasuna eskubide bat izatea nahi dugu eta ez desberdintza baten hasiera; kontziliazioa familia kontua izatea nahi dugu eta ez emakumeen kontua soilik. Errespetu gaitzela nahi dugu, ezetza ez izan dadila beti. Balora gaitzela nahi dugu. Goiztirian etxera itzultzean beldurrik ez izatea nahi dugu; ez gaitzela epaitu goiztirian etxera bakarka itzultzeagatik edo goiztirian etxera lagunduta itzultzeagatik. Ohikoa dena normala ez izatea nahi



dugu. Erabakiak hartzen diren lekuan egon nahi dugu. Ikusgai izan nahi dugu. Aurrera egiten jarraitu nahi dugu, atzera ez egitea nahi dugu. Zuek nahi duzuen gauza bera nahi dugu. Borroka hau zuen borroka ere izan dadila nahi dugu. Zuen bizitzan bidaide den emakume horren adiskideena, senarrena, mutil-lagunena, amoranteena, aitena, semeena edo anaiena. Premiazkoa denak garrantzitsua den horretarako beta uztea nahi dugu.

Motiboak baditugu, arrazoiak badira, aitzakiak ere bai. Behar besteko kausa ikusten ez duten ahotsak, aldarrikapen hauek ideologikotzat hartzen dituztenak, ohiko argudioetatik tiraka hau elite feministen protesta dela ziurtatzen dutenak baina ez egunerokotasunean arazoak dituzten egiazko emakumeena. Arazo bat dugula ez aitortzeko aitzakiak, arazoa ebatzi nahi ez izateko aurreiritziak, agerian dagoena ezkutatzeko desenkusak: gu gelditzen bagara, mundua geratzen dela”.

Alkatea: besterik aipatu nahi ez baduzue, bozketa egingo dugu.

Bozkatu egin da:

Kontrako botoak:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4);

Onartuta geratu da.

3.- Alkatetzaren ebazpenak jakinaraztea.

Alkate jaunak, idazkariak lagunduta, 18-41 bitarteko Dekretuak direla jakinarazi du, eta baten bat falta da, eta azkenak, fakturen onarpenak direnak. Falta dira 23, 38, 39 eta 40.

Alkatea: Zerbait esan nahi baduzue.

Zinegotzi bertaratuak jakinaren gainean daude. Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Maria Lorente Burgos eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EHBildu alderditik (4);

4.- Udal kudeaketaren kontrola.

- Iñigo Gomez Unzueta: hemen aurreko Osoko Bilkuran atera ziren kontu pare bat aipatu nahi ditut. Percotourren komunikazioari dagokionez, halaxe da, ile-apaindegietara ez zen deialdia igorri. Zerrenda jarraitu zen, komertzioetan erreparatu zen, ile-apaindegiak aparteko atal batean



zeuden eta ez zitzaien deialdia igorri. Eta ondoren, era berean, Erretako zentroari dagokionez, udal teknikariak zorua ikusten aritu dira apur bat. Arazo nagusia, ez dirudi harago doanik, lehen solairuan arazo nagusia da solairuaren altuera gehiegi ez jaisteko ez zela lautu, eta horren ondorioz zonalde batzuetan bada... ipini zen tarima apur bat solte dago.

- Joseba Vivanco Retes: beno, nik ezer baino lehen, gure taldetik gure elkartasuna, gure babesa, eskaini nahi diegu astelehenero Artziniegako Udalaren aurrean eta beste udalerriz batzuetan pentsio duin batzuk eskatzeko elkartzen diren erretirodun eta pentsiodunei. Eta, era berean, Xabier Rey euskal presoaren familiari gure elkartasuna erakusteko baliatu nahi dugu abagune hau, atzo hil baitzen bere etxetik 1.000 kilometrora, Espainiako Gobernuaren espetxe-politikaren biktima. Eta hori esanda, Alkatezari aurreko osoko bilkurari dagokion gai bati buruz galdegin nahi diot, gauza bat argi dakigun. EAJ alderdiko Izaskun zinegotziaren agerraldiarekin du zerikusia. Une jakin batean, aktan ustez jasotzen ez bada ere, gure zinegotzi Unai hartu zuen hitza eta Izaskunek esan zion ezin zuela hitz egiten, bera ari zela hitz egiten...

Miren Izaskun Perez Barragan: ez, ez nion hori esan, beno barkatu.

Joseba Vivanco Retes: Alkatea hitz egiten ari zen une horretan, orduan isildu egin zen, eta zera bakarrik, aktan jasotzen dena irakurriko dut "Ondoren Unai galdetzen du, hitz egin dezaket orain?, Alkateak erantzuten dio "bai, bai", Izaskunek hitza hartu eta adierazten du hitzaren txanda banatzen duena, ez dakit, ni hemen berria naiz, Alkatea da. Unai erantzuten du: "hemen sekula ere ez, Izaskunek zera aipatzen du; bai, baina araudi bat dago, Alkateak dio: ez, hemen tolerantziari bide ematen diogu nolabait eta Izaskunek amaitzeko zera esaten du "hitzaren txanda Alkateak ematen du, bestela eromena da hau".

Orduan jakin nahi genuen bakarra da, Alkateari galdetu, ea osoko bilkuren funtzionamenduari dagokionez irizpideren bat aldatuko ote den, aspaldi ari baita hala funtzionatzen, nik 7 urte daramatzat bederen, bada denbora gehiago daraman jendea, uste dut berdintsu funtzionatu izan duela, eta irizpideren bat aldatuko ote dena ala ez.

Alkatea: tira ez, Antolamendu eta Funtzionamendu Erregelamendua aplikatzea zehatz-mehatz, ez, jakina. Beno, orain arte bezala funtzionatzen da, nolabaiteko malgutasunez, ordena baten barruan, baina irizpide berarekin.

Joseba Vivanco Retes: argituta.

Miren Izaskun Perez Barragan: EH-Bilduko zinegotziak aipatu egin nauenez, ez dakit zein den zure kexa, izan ere, Unairi esan niona ematen diren solasaldi paraleloetarako zen, esan nion hitzaren txanda normalean Alkateak banatzen duela, eta ez dakit zein den arazoa. Nik Unai isilarazi nuela...

Joseba Vivanco Retes: arazoa da irizpidea aldatuko ote zen ala ez argitzea nahi genuela.

Miren Izaskun Perez Barragan: ez da irizpide kontua. Solasaldi paraleloak zeuden, Iñigo hitz egiten ari zen, Alkatea, eta Unai galdetzen ari zen edo galdera luzatu behar zuen eta esan nion itxaron, hiruzpalau solasaldi zeuden, bera dela hitzaren txanda banatzen duena.

Joseba Vivanco Retes: bai baina txanda banatzen duena...

Miren Izaskun Perez Barragan: nik ez dut hitzaren txanda ematen, baina ez ezazu esan...

Joseba Vivanco Retes: hitzaren txanda banatzen duena eta agintzen duena Alkatea da.

Miren Izaskun Perez Barragan: Joseba, nik hitz egiten utzi dizut, mesedez. Orduan, ni esaten ari nintzaiona da ordena bat jarrai dezagula, eta hitzaren txanda ematen duena Alkatea dela. Kito, ez nuen isilarazi, ez nion esan "isil zaitez", eta uste dut hori ari zarela iradokitzen, edo hori ulertzea iruditu zait.

Joseba Vivanco Retes: bada, hitza ez da zehazki jasotzen, ez da zehazki jasotzen...



Miren Izaskun Perez Barragan: bada ez zen nire asmoa. Unai, zuk uste izan bazenuen nik hitza kendu nizula, oraintxe bertan esaten dizut ezetz.

Alkatea: ez dut gogoan zehazki nola gertatu zen.

Joseba Vivanco Retes: edozein kasutan, argi dagoena da eztabaida gidatzen duena Alkatea dela eta ez zinegotzi bat, ez guk, ez beste inork. Inork esate badio Unairi, "aizu Unai, errespetatu zure txanda" gure ustez Alkateak esan beharko lioke.

Miren Izaskun Perez Barragan: baina nik ez diot Unairi arretarik eman.

Joseba Vivanco Retes: tira!

Miren Izaskun Perez Barragan: zuk horrela ulertu baduzu...

Joseba Vivanco Retes: nik uste dut gertatzen den lehen aldia dela. Nik zazpi urte daramatzat, ez da denbora asko, bada denbora gehiago daraman jendea...

Alkatea: ez dut gogoan zehazki egoera zein izan zen.

Joseba Vivanco Retes: ... Alkatea ez den norbaitek zinegotzia mozten duela esateko "isil zaitez" edo esaten diozula "aizu, ez da zure txanda" edo dena delakoa.

Miren Izaskun Perez Barragan: baina ez da hori gertatutakoa. Ez da hori gertatutakoa.

Joseba Vivanco Retes: jakin nahi duguna da ea irizpidea aldatuko ote den.

Alkatea: beno, hitz egiten uzten badidazue, ni ere hitz egiten saiatzean ari bainaiz, eta ezin dut. Berrit diot, irizpidea berdina da, malgutasunari bide emanez, ordenari bide emanez, eta orain arte mantendu den malgutasunaren barruan.

Joseba Vivanco Retes: bai, bai, argi dago.

Unai Gotxi Kastrexana: niri esan zidanez, bada ni aipatzen baino ez nintzen ari, ez nuen ezer adierazi behar, Elejalderi esan ziguna azaldu behar nion, eta isiltzeko esan ez bazenidan ez ditut gogoan hitz zehatzak, baina arreta eman zenidan, eta horregatik isildu nintzen eta horregatik esan nuen "orain hitz egin badezaket". Bestela ez nintzatekeen isilduko, noski.

Miren Izaskun Perez Barragan: ez zen nire asmoa. Ez zenidan ongi ulertuko, baina ez zen nire asmoa zu isilaraztea ez ezer. Eta horrela ulertu eta gaizki sentitzen bazara, barkamena eskatzen dizut baina ez zen nire asmoa, noski.

Joseba Vivanco Retes: argituta.

- Unai Gotxi Kastrexana: aste honetan, erauntsien harira, hemen izan dugun eguraldiaren harira, euriteak eta abar, zenbait auzotar kexatu egin dira alde zaharreko erretenen egoera dela eta, batez ere, egoera txarrean daudelako. Nik ere ikusi dut, eta aurreko legealdia gogoratuz, oker ez banaiz, EH-Bilduk eskatu zuen jadanik erretenak egoera txarrean zituzten eraikinetako jabedunei jakinarazteko konpon zitezela.

Alkatea: nik uste dut legealdi honetan ere egin dela hori.

Unai Gotxi Kastrexana: noan, garrantzitsuena da txosten bat egin zela eta bertan nork egin zuen eta nork ez jasotzen zela, eta gaia hor geratu zen geldirik. Ikusirik oraindik arazoak daudela etxeetako aleroekin, ez dakit, agian ongi legoke, berrit azter dadila eskatzen dugu, batez ere oinarritzko txosten horrekin, herriko erretenen kontua.

Alkatea: gai hori mahai gainean dugu, eta behin eta berriz igorri zaie jabedunei. Zenbait kasutan gauzatu da, beste batzuetan igorritako gutunari entzungor egin zaio, eta beste kasu batzuetan alegazioak egin dira, ez dut gogoan idatziz egin ote diren, baina alegazioak egin dira. Baina egia da burutzeke dagoen gai bat dela, jakinarazi da, baina agian jakinarazpenarekin eta oroitzearekin ez da aski, ez dakit, ikusi egin behar da.



Unai Gotxi Kastrexana: jakina. Beste gai batzuetan hartu dira neurri "zorrotzagoak", ez dakit, agian gai honekin ere hala egin behar da. Eta beno, orain udaberria datorrenez, abagunea balia daiteke berriro orotarazteko, eta batez ere, Udalak baterako bitarteko moduan jardun badezake, edo ez dakit nola esan, gai honetan dauden demanda guztien bitartekari moduan, batez ere erretenen konponketen gaiarekin lotuta, bada, askoz ere hobeto.

- Unai Gotxi Kastrexana: badut beste gai bat zaharra dena, beste osoko bilkuraren batean galdetu izan dut, ez dut gogoan noiz zehazki, usoen kaiolaren gaia da. Aspaldi galdetu nuen non ote zegoen, usoen kaiola non zegoen inork ez zekien, horrela geratu zen gaia, izan ere, nik oraindik ez dakit non dagoen usoen kaiola, eta galdera dator orain erdigunera uso askotxo etorri direlako, orain ikusten denez uso kopuruak gora egin du, batez ere erdigunean, eta are ikusi izan da usoren bat hilda, ez arrazoi naturalak direla medio, baizik eta balatxo batek harrapatuta, beraz, ikusten denez alde zaharreko jendea ez dago gustura usoekin. Lehen galdera da usoen kaiola non ote dagoen eta bigarrena mugitzeko edo alde zaharrean ere esku hartzeko premia ikusi ote den.

Alkatea: bada, kaiola ez dakit erabiltzen ari diren. Granjan dago. Eta ez dakit erabiltzen ari ote diren, izan ere, leku horretan jateko nahikoa toki daukate usoek, eta pentsu asko daukate han. Egia da haiek ere jateko sistema aldatu egingo dutela, jaten ematen dieten zonalde batzuk itxi egingo dituzte, ixteko asmoa dute, behiek burua sartu behar izan dezaten, orduan usoek ezin dute hara sartu, baina han dago.

Unai Gotxi Kastrexana: Ikusi al da alde zaharrean arazoak daudela? Beno, eta leku gehiagotan.

Alkatea: beno usoekin arazoak oraindik baditugu.

Unai Gotxi Kastrexana: orain uso kopuruak gora egin du hemen alde zaharrean, ez bazenekiten nik esango dizuet orain, guk esango dizuegu orain, har daitezela neurriak.

Alkatea: oraindik arazoak izaten jarraitzen dugu, kaiolarekin ez dela aski baitirudi, kaiola eta kopuruak gora egitea ekiditen zuen pentsuarekin, ez soilik kaiola.

Unai Gotxi Kastrexana: jaso dadila eta alde zaharrean ere esku har dadila.

- Unai Gotxi Kastrexana: horrez gain, badut urtarrilaren 4ko osoko bilkuran aipatu nuen beste gai bat, eta Garai plazako erabiltzaile batek abenduaren 12an Udalean plazako iturriaren egoerari buruz erregistratu zuen idatziarekin du zerikusia, kexu zen ez zegoelako baldintza onetan, zurrustak zipriztinak jaurtitzen zituen, ez zen aski eta hori guztiori. Gaur egiaztatu dugu zurrustak edo iturriak berdin jarraitzen duela, eta egiaz ez zaio idatzi hari erantzunik eman. Badago pertsona horri erantzuna emateko asmorik?

Alkatea: arazoa ebazteko asmoa da dagoena. Burutzeke ditugun lanketetako bat da.

Unai Gotxi Kastrexana: baina, ebatziko al da?

Alkatea: bai, ebatzi egin nahi dugu.

Unai Gotxi Kastrexana: urtarrilaren lauan esan nuen, bi hilabete igaro dira eta pertsona hark abenduaren 12an erregistratu zuen idatzia, bi hilabete eta erdi.

Alkatea: badakit bai, bai, gauzatzeke ditugun lanketetako bat da.

Unai Gotxi Kastrexana: iturri bat, txorrota bat, aldatzea besterik ez da, ez naiz hemen eskatzen ari...

Alkatea: beno, dauzkagun lanketen artean, asko baititugu...

Unai Gotxi Kastrexana: eta batez ere idatzia erregistratu zuen pertsonari erantzuna ere



ematea, aldaketa egiteko ahalegina egingo dela bederen.

Alkatea: ez dugu erantzun, baina iturria aldatu egingo dugu, hori bai.

Unai Gotxi Kastrexana: eta ahal dela erantzuna ematea, zer egingo den esanez bederen.

Alkatea: batez ere iturriaren aldaketarekin.

- Unai Gotxi Kastrexana: eta gero badut beste gai bat, hau ere atzetik datorrena, 2015etik, Iñigo urtarrilaren 4ko osoko bilkuran espaloiko hondamenen inguruan ere galdetu nizun, ez soilik alde zaharrean jadanik, parean dagoenera ere hedatu nuen gaia, museoa gurutzatu eta gasolindegira jaisten denera, egoera txarrean baitago, beno, ia ibili ere ezin da egin. Eta urtarrileko osoko bilkuran esan zenidan arkitektoari balioespen bat eskatu zeniola dagoeneko.

Alkatea: arkitekto teknikoari, aparejadoreari.

Unai Gotxi Kastrexana: Nola dago gaia?

Alkatea: oraindik ez daukat. Oraindik ez daukat balioespen hori.

Unai Gotxi Kastrexana: Baina badakizu horretan ari ote den?

Alkatea: bada bai, horretan ari da, horretan ari da beste lanketa askoren artean.

Unai Gotxi Kastrexana: Eta noiztik ari da horretan?

Alkatea: oraindik ez dauka burututa, ez dauka eginda.

Unai Gotxi Kastrexana: nik urtarrilaren lauan esan nuen eta.

Alkatea: bai, baina oraindik ez dauka.

Unai Gotxi Kastrexana: beno, bada, ea gaiari abiadura pixka bat ematen zaion, izan ere, berriro diot 2015etik datorren gai bat da, alde zaharrekoan erorikoak izan dira, eta ezin da horrela jarraitu. Gainera, nire ustez, ez da beharrezkoa lauzak aldatzeko txosten bat egitea, batez ere alde zaharrekoak.

Alkatea: egia da, baina aparejadorea leporaino dabilela ziurtatzen dizut.

Unai Gotxi Kastrexana: nik hori ez dut zalantzan ipiniko. Nik esan berri dudana da nire ustez ez dela beharrezkoa txosten bat alde zaharrean dauden lauzak aldatzeko.

Alkatea: beno, aparejadoreari txostena eskatu diot.

Unai Gotxi Kastrexana: oso ongi iruditzen zait, baina txosten hori egiten den bitartean, ez dakit, bestea egiten joan daiteke.

Alkatea: eta nik ziurtatzen dizut, berriro diotsut, leporaino dabilela. Izan ere, agian pentsatzen ari zara nagi dabilela, ez, ez dabil nagi.

Unai Gotxi Kastrexana: ulertzen dut, Iñigo, eta esan dizut ez dudala zalantzan ipintzen inongo momentutan, baina ez dela beharrezkoa txosten hori alde zaharreko lauzak aldatzeko.

- Joseba Vivanco Retes: orain gaiari buruz ari nintzela, duela gutxi berriro oroitarazi ziguten zera, ez dakit murrua ala hesia ote den, harrizkoa zena, Arteko igoeran, iaztik erorita baitago.

Alkatea: bai, iaztik erorita dago.

Joseba Vivanco Retes: eta egoera berean jarraitzen du, zinta gorri eta zuriak jarrita.

Alkatea: bai, hori motor showarena izan zen, motor showak parte eman zion aseguruari, Aldundira helarazi da, eta konpontzeke dago.



Joseba Vivanco Retes: hau da, Aldundiak konpondu behar duela. Bada azkar dabil gero.

Alkatea: bai, bai, bai.

Joseba Vivanco Retes: bada gogorarazi egin beharko zaio.

- Alazne Lafragua Ureta: nik burutzeke dauden lanketekin jarraituko dut pixka bat. Egia da Josebak aurre hartu didala, nik ere murruren inguruan galdetu behar bainizun. Eta gero beste kontu bat da Sotoko auzoko espaloiena eta zonalde guztiena, SR-1 zonaldea, espalo horietatik ezin da ibili ere egin. Euri apur bat egiten duenean ezin da bertatik ibili, ezta laua dagoen lekuan ere. Ez sinestekoa da zenbat irristatzen duen. Urteak daramatza horrela.

Alkatea: hori da tarte horretan, SR-1 izenekoan, burutzeke dauden obrak egiten ditugunean gauzatu behar dugun gauzetako bat. Nagusiki espaloiak izango dira egingo duguna.

Alazne Lafragua Ureta: hori da egin behar zenuten bilkurarena eta azkenean egin ez duzuen txostenaren zain zaudetelako, ezta? Eta txostena, noizko? Izan ere, hori ere aspalditik dator.

Alkatea: bada, niri lehen seihilekoa baino lehen izatea gustatuko litzaidake jadanik, txostena eduki eta bilkura eginda izan. Eta obrak aurtan gauzatzen hasi ahal izatea.

Alazne Lafragua Ureta: hala izatea espero dugu, aspalditik datorren gai bat baita, eta espaloien kontua, zu handik igarotzen bazara, jendea errepidetik ibiltzen da, espaloitik ezin baita ibili. Eta zerbait gertatzen ez den unera arte inork... baina, egiaz, horrek irristatu egiten du eta egunen batean norbaitek erorikoa izango du eta hona etorriko da esanez "aizu, barkatu, irristatu egin naiz" eta Udalari eskatuko dizkio kontuak, izan ere, urteak daramatza horrek horrela. Oso ongi iruditzen zait txostenaren zain egotea baina egiten joan beharreko gauzak dira. Lauzeekin gauza bea, gauza bera..., gehiegi dira burutzeke dauden gaiak. Metatzen doaz eta karpeta gizentzen.

Alkatea: bai, baina kasu honetan txostenaren ondotik gauzatu behar dugu.

Alazne Lafragua Ureta: beno, bada, kontuan har dadin.

- Alazne Lafragua Ureta: gero, pinuetako zera horiena, pinu-beldarrarena, mendia beteta dago, baina beteta.

Alkatea: Aldundiari eskatu diogu fumigatzeko.

Alazne Lafragua Ureta: Eta noiz fumigatuko da? Gaur eskatu al duzue?

Ascension Hormazabal Meabe: bai, izan ere, Jose Mari atzo etorri zen eta idatzirik egin ote genuen galdetu zidan. Niri inork ez zidan ezer esan.

Alkatea: nik uste nuen egina genuela jadanik. Beno, egin dugu.

Alazne Lafragua Ureta: Eta noiz fumigatuko den edo zerbait? Badakigu?

Alkatea: bada, ez dakit noiz fumigatuko duten.

Alazne Lafragua Ureta: mendian osteratxo bat egitera gonbidatzen zaituztet, Pandoan bertan, eta bi urrats eman eta beldarren bola osoak aurki daitezke hor zehar ibiliz, arriskutsua da tira, baina gehiegizkoa, izurritea.

Alkatea: eta orain zailagoa da, abionetarekin ezin baita fumigatu.

Alazne Lafragua Ureta: bada irtenbideren bat bilatu beharko da, izan ere, irteten ari dira dagoeneko. Udaberria aurreratzen ari da eta irteten ari dira.

- Arkaitz San Jose Martinez: gure taldetik uste genuen martxoko osoko bilkuran 2018ko aurrekontuaren proposamena ekarriko zela. Intuzioa genuen batzordean jorratu ez zenez ez zela



hala izango agian, baina orduan galdera da jakiteko pixka bat nola dagoen aurrekontua eratu eta onartzeko prozesua. Bilkurak izan ditugu eta...

Alkatea: hil honetan zehar batzordea izango dugu, proiektu bat izango dugu.

Arkaitz San Jose Martinez: ados, bada ea denboraz helarazten diguzuen, izan ere, zein kontu barneratzen diren aztertu beharko dugu.

- Arkaitz San Jose Martinez: beste kontu bat, zeretik..., ni ia Udaleko zinegotzi naizenetik, EH-Bildu taldetik behin eta berriz errepikatu izan dugu gogoeta bat ezinbestekoa dela, gauza askori buruzkoa, baina horien artean garrantzitsutzat jotzen genuen erdi aroko azokari buruzko gogoeta bat egitea, haren iraganari, orainari eta etorkizunari buruz. Eta uste genuen dagoeneko nekea antzematen zela, parte hartu ohi duen jende gehienaren aldetik, azokan kolaboratuz eta, are, baita hura antolatuz ere, hori nahiko agerikoa zen azken urteotan. Gogoeta hori ez da planteatu eta gaur egun, erdi aroko azoka antolatzeko azken bilkuraren ondoren dirudienez, inor ez da arduratzen hura antolatzeaz, orduan gure galdera da ea, ikusitakoaren ondotik, azokaren etorkizunari buruzko gogoeta bat egiteko unea izan ote daitekeen epe luzera, edo oraindik zain egon behar ote garen... ez dakit zeren zain. Eta halere, zein asmo dagoen edo nola jorratzea aurreikusten den, baldin eta 2018an erdi aroko azoka antolatzeko ideari eusten zaion.

Inmaculada Vivanco Retes: bilkura duela 15 egun deitu zen, eta esan ahal dizudana da bertaratu ginen lau pertsonok egin genuela gogoeta, baina bertaratu ginen laurok, izan ere, badirudi herrian inori ez zaiola azoka interesatzen. Hori da deialdi horretara inor joan ez izanak erakusten didana, beste inori ez zaiola interesatzen, antolaketa, nola egiten den edo nola garatzen den. Diotsudan moduan lau pertsona izan ginen hemen, etxera joan gintezkeen berdin-berdin, ordu bat edo ordu eta erdi egon ginen, azokaren inguruan hitz egiten, ez beste ezertaz hitz egiten. Orduan erabaki genuen deialdi bat egingo zela ea norbait, talde, elkarte edo partikularren bat interesaturik ote zegoen edo prest ote zegoen azoka antolatzeko, eta oraindik ez da egin azken urteotako antolatzailletako batek esan zuelako Kabilarekin ere hitz egin behar zela, eta oraindik ez dugu erantzun hori. Badakigu hitz egin zuela, erantzunaren zain zegoen, eta ez daukagu halakorik. Baina tira, azokari buruzko gogoeta? Bada beti nahi dugun azoka. Nik uste dut guztiok dugula argi zein azoka mota, Artziniegako antzinako azoka beste batzuekin alderatuz berezia izan dadila formatuari, muntatzeko moduari eta antolatzeko moduari dagokionez. Eta uste dut hori guztiok dugula argi. Nik ez daukadana argi da ea guztiok prest gauden, edo azokan parte hartu eta hura babestea horren argi ote dugun.

Arkaitz San Jose Martinez: hau da, zuen ondorioa da, zeundeten lau pertsona horiei ez ezik, beste inori ez zaiola interesatzen...

Inmaculada Vivanco Retes: nire ustez horixe erakusten du, eta azken urteotan erakusten dit niri.

Arkaitz San Jose Martinez: agian jorratzeko modua da, orain arte egiten denaren jarraipena izatea... tira, nik kolektibo asko ikusten ditut egun horretan jarraitzen dutenak, ikusi beharko litzateke aldarte txarrez ala ez...

Inmaculada Vivanco Retes: asko, ez horrenbeste. Badira betiko moduan parte hartzen jarraitzen duten kolektiboak, betikoak, eta badira kolektibo asko, partikular asko... eta hala diotsut hala delako, hala delako, izan ere, esan ahal dizut 50 pertsona edo gehiago egongo direla parte hartu dutenak, jantzi direnak, girotze-lanetan parte hartu dutenak, eta parte hartzen ez dutenak, baina duela urte askotik. Zergatik? Ezta urrik ere. Beroa egiten duela? Ez naiz jantziko. Hotza egiten duela?, ez naiz aterako. Niri, pertsonalki, berdin zait euria egiten badu, ekaitzak jotzea, 40 gradu egitea, ni girotu egiten naiz eta parte hartu egiten dut. Eta zerbaitetan kolaboratu behar bada, bada hala egiten dut. Uste dut gainera hala erakutsi dudala, eta egiten jarraitzen duten beste pertsona eta talde asko bezalaxe, eta erakusten jarraitzen dute eta kolaboratzen. Zergatik? Gustatu egiten zaielako. Baina azoka egon dadin, ezinbestekoa da aurretiko lana, eta eskua



luzatu behar da, eta lana ere egin behar da.

Arkaitz San Jose Martinez: ongi, baina gu esaten aritu garena da zuk bilkura bat deitzen baduzu datorren urtean azoka nork hartzen duen ikusteko, ulertzeko modu asko egongo dira, baina gure ustez inertzia orain arte bezala funtzionatzen jarraitzea dela. Gure ustez egin beharko litzatekeena zera da, denbora hartuta, azoka igaro ondotik, jendearen parte-hartzea bilatzen ahalegintzea, historikoki egon diren horiena, lehenengoz antolatu zuten horiena, ondoren beregain hartu zutenena, eta azkenaldian antolatzen aritu diren horiena, gero ikusi nondik jo daitekeen, eta ondoren jadanik, eredu batekin... izan ere, jakina, berezia izan behar dela diozun horri buruz, modu askotara izan daiteke ezberdin. Ezberdin izatea ez da ideia bat, inork ez duen zoko bat bilatzea da, baina, nola?

Inmaculada Vivanco Retes: antzinako azoka batean ez dakit aldaketarako tarte gehiegi ote dagoen. Aldaketarako tarte nire ustez izango litzateke duela hamar urtekoa bezalako aurrekontu bat izatea, eta ekartzeko ekitaldi eta gauza asko izatea. Baina oraintxe bertan ezin dugu hala egin.

Arkaitz San Jose Martinez: Zure ustez ezberdintasuna dirurik ezin inbertitu izana da?

Inmaculada Vivanco Retes: ezberdintasunen arteko bat. Nire ustez kontuan hartu beharreko beste gauza bat da jendea, oro har, gero eta gutxiago inplikatzeko dela.

Arkaitz San Jose Martinez: zergatik ikusi beharko da.

Inmaculada Vivanco Retes: jendea gero eta alferragoa delako. Gauzak eginda ematea nahi du.

Arkaitz San Jose Martinez: ez, edo gauza bera egiteko...

Inmaculada Vivanco Retes: bai, bai, bai.

Arkaitz San Jose Martinez: beno, nik uste dut ezetz.

Inmaculada Vivanco Retes: jendea gero eta alferragoa da eta gauzak eginda ematea nahi du. Jendeari gustatzen zaiona da, eta nire iritziak dira, ez dira taldearen iritziak. Jendeari gustatzen zaiona da azoka egotea, egun horretan festa egotea, irtetea, ongi pasatzea, baina beste batzuk antolatu eta presta dezatela.

Arkaitz San Jose Martinez: bada, nik guztiz kontrakoa pentsatzen dut.

Inmaculada Vivanco Retes: nik uste dut oso oker zaudela eta ez duzula errealitatea ikusten.

Arkaitz San Jose Martinez: agian...

Alkatea: egia esatera, penagarria da, izan ere, egon zen bilkura hartan, eta egia da lau pertsona izan zirela, gai hauek jorratu ziren. Datarik buruz hitz egin zen, egokiena ote den, zergatik atera ote zen festetatik, zergatik ipini ote zen ekainean, zein ote den ipintzeko datarik onena. Parte-hartzeari buruz ere hitz egin zen, formatuari buruz hitz egin zen, postuetako eskakizun-mailaz, izan ere, zenbaitetan batzuek esaten dute "eskatzen ari zataizkidaten gauzak... plastikorik ez egotea, ezinezkoa dena saltzen dudako produktu batzuetan, eta oso zaila izaten da". Halaber, erdi aroko azokari buruz hitz egin zen produktu heldu modura, leku askotan hedatu zen produktu heldu modura, eta nolabaiteko nekea ere sorrarazi zuena. Izan ere, orain jadanik gutxiago dira, baina modan daude. Gero Artziniegako antzinako azokaren berezitasunari buruz ere hitz egin zen, apur bat estiloa mantenduz, ezberdinduko duen zerbait mantenduz, esate baterako, Balmasedako erdi aroko azokarekin alderatuz, zein ziurren guztietan okerrena izan arren jende aldetik arrakastatsua den, jende andana biltzen da...

Arkaitz San Jose Martinez: Baina onena edo okerrena zeren baitan?

Alkatea: jende andana etortzen da. Ondoren aipatu zen egon daitekeela nolabaiteko nekea, izan ere, azken batean dagoeneko urte asko dira, festen ostean egiten da, hiru asteburu dira festetan, baina bestalde antzinako azoka dagoeneko sendotuta dago, ezaguna da, eta jendeak



etortzen jarraitzen du halere. Ateari buruz ere hitz egin zen, zergatik ez ote den atea ipintzen. Eta atea ez da ipintzen aldamiaoa bere garaian ad hoc egindako aldamio bat delako, eta eskuzko aldamio bat da atzean segurtasun-ziurtapenik ez duena. Eta, horrenbestez, zerbait gertatzen bada, inork ez du erantzukizunik. Eta horregatik ez da ipintzen, eta horregatik ezin da ipini. Eta zuk aldamio bat lortzen baduzu ere, homologatutako aldamio bat, gainean beira-zuntzeko plaka horiek itsatsi behar dituzu, eta horiek ere ez daude homologatuta. Hots, beira-zuntzeko plaka bat askatzen bada inork ez du erantzukizunik horretan, beno, hori baldintza onetan dago eta ez da deus gertatuko. Eta orduan, Hiribilduko atea ipini nahi badugu ere, ipintzeko beste ereduren bat pentsatu beharko dugu, izan ere, hura jende boluntarioaren lankidetzeta eta lanaren ondorioz sortu zen, sekulako lana egin zuena, baina orain konpondu egin behar da eta segurtasun arloko alderdi batzuk bete behar dira oraintxe bertan bermatu ezin direnak. Eta horretaz guztiaz hitz egin zen joan den egunean. Eta egia esan penagarria izan zen horren jende gutxi etortzea, gai horietaz guztiez hitz egin zitekeen eta.

Arkaitz San Jose Martinez: nik esaten dudana da Iñigo, ni bilkura baterako, beno, nik ez dut nire inguruabar pertsonalez hitz egingo, baina, azoka antolatzekeo bilkura batera agian ni ez naiz etorriko, baina agian azokaren ereduari buruz eztabaidatzeko bai. Eskema errepikatzen dugu, hots, azoka egin eta ondoren azoka antolatzekeo bilkura bat egiten dugu, nire ustez mailatxo bat falta da. Edozein kasutan, ulertu dudanez, uste dut beste deialdi bat egingo dela, eta ezberdina izango dela. Edozein kasutan, pertsona boluntario eta borondatetsurik ez bada aurkezten berriro azoka antolatzekeo, zein da Udalaren proposamena?

Alkatea: pentsa dezagun norbaitek kolaboratuko duela.

Arkaitz San Jose Martinez: Eta bestela? Baduzue edo inprobisatu egiten duzue?

Alkatea: momentuz ez dugu ezer aurreikusita.

Joseba Vivanco Retes: nik gauza bat aipatu nahi nuen. Nik badakit Inma, festen gaia ateratzen denean, azokaren gaia, oso hurbiletik eragiten dizula horretan lan asko egin behar izan baituzu. Abiatzeko, lehendabizi esaten dizut, aitortu egin duzun lan eskerga erdi aroko azoka egitea egokitu zaizunean, festak egitea egokitu zaizunean, egin duzun lan eskerga. Hortik aurrera, zirriborroa eta aurrera. Arkaitzek esan du. Guk hiru, lau urte, daramatzagu kalakan. Are aurrekontuetan ere, aurrekontuetan ere markatu izan dugu, urteren bateko aurrekontuen eztabaidan, guk ez genuela partidarik onartuko ez bageunden ados ez partida horren zenbatekoarekin, baizik eta hura kudeatzeko moduarekin, partida hori egiteko moduarekin. Eta horietako bat erdi aroko azoka zen. Ez gara ariko onartzen 6.000, 7.000 euro, 13.000 euro edo ez dakit zenbat joan den dagoeneko aurtan, bat-batean neurritz gain joan da...

Alkatea: bai, beno, aurtan neurritz gain joan da finantzaketa osagarria eskuratu dugulako. Horregatik joan da neurritz gain.

Joseba Vivanco Retes: hiruzpalau urte goaz zera esaten: "gogoeta bat behar da, gogoeta sakon bat behar da, gelditu egin behar da". Are gehiago, iaz proposatu ere egin genuen, idatziz uste dut, erdi aroko azoka amaitu bezain laster, udal gobernuari dei egin geniezaion datorren urteko, eta etorkizunera begirako azoka eztabaidatzen has dadin. Egin nahi zela eta ez dakit zer. Hona etorri eta esatea hori azoka antolatzekeo deialdi arrunt batean egin dela eta lau elkartu gabela eta etorri ez direnei bost axola zaiela azoka, hots, hori irristatzea da, irristatzea da. Zure iritzia izan daiteke, baina ez da errealista ere. Izan ere, adibidez gu lauk egon bagina, bilkura bat bada, hala bada, ez bilkura bat, nahi den azoka-ereduari buruz eztabaidatzeko. Azoka nahi ote den, ez ote den nahi, edo zer den egin nahi dena. Ez antolatzekeo deitzen duzun bilkura batean, lau datoz, argi eta garbi dagoelako lau etorriko direla, izan ere, pentsatzen dut aurrekoetan ez zela jende gehiago etorriko, egiten dute, ez dakit duela zenbat urtetik egiten duten zenbait tabernak, bost urte, lau urte, ez dakit zehazki, egiten dute, pentsatzen dut zuek ere ziurtzat ematen zenutela taberneke egiten jarraituko zutela nahiz eta urtero esaten duten aurtengoa dela azkena. Beno, badirudi, aurtan agian egiten duten azkena izango dela, baina tira, hau amaitzea, azokari buruzko eztabaida esanez "lau elkartu gara eta hitz egiten aritu gara", ni festetako milaka bilkuretan izan naiz, ostiralean badago bat, eta hemen egon zaitezke hiru orduz aingeruei buruz hitz egiten, izan



ere, egia da, bilkuretan hori gertatzen da. Aingeruei buruz hitz egiten duzu, eta muinera jo nahi baduzu, festak nork antolatuko dituen, azkenerako geratzen da ea baten bat konbentzitu ote den hainbeste solasaldiren ostean eta baietz esaten duen. Baina ez zara festei buruzko eztabaida batean sartzen. Hemen lau elkartu zineten, hitz egingo zenuten, bikain, lau orde, bost orduz, bikain, baina, nora doa hori? Hori ez da erdi aroko azokari buruz gogoeta egitea. Orduan, esatea jendeari ez zaiola interesatzen, interesa galdu duela, interesa galdu duen lehenengoa udal gobernua bada. Urteak daramatzagula esanez, geldi! jendearekin elkartzen hasi beharrean gaude, zein azoka nahi duen galdetzen hasi beharrean gaude eta urte oso bat dugu aurretik aztertzeko. Eta urte horretan ez bada hurrengoan, baina egin dezagun denborarekin. Zerbait egin duzue? Bilkura bat ere ez. Ezta deialdi bakar bat ere, esateko urrian, azaroan, aizu, elkartu egingo gara, ez dakit zeren jaunak, ez dakit zeren andereñoak, ez dakit zeren andreak, zein iritzi duzue azokaren inguruan? Bada, hau, hau eta hau. Eta iritzi-sorta hori guztiori hartu eta bateratu egiten duzu. Eta jendeak nahi duenari buruzko ideia bat osatzen duzu. Izan ere esatea "ez zaie axola ordea, hotz egiten du ordea, aspertu egin dira ordea". Tira azkenean guztiok ikusi dugu azokak zer-nolako gainbehera izan duen, azken finean ez baita lehengo azoka ere, ez dakigu zer den, ez diogu gure buruari galdetzen zergatik, esaten duzu, ez, ez zaie interesatzen. Uste dut ez dela hori kontua. Errealista ez den modu batean jorratu duzu, ez da errealista inondik ere. Eta frogetan erreparatzen dut. Azokaren aldeko egiazko apustua egin nahi badugu, eta uste dut azokaren aldeko apustua egin dezakegula, guk bederen bai, azokaren alde egin nahi dugu, egin dezagun eztabaida hori. Baina seriocki. Eta eztabaida ez da atea bai, atea ez, 6.000 euro edo 14.000 edo 30.000. Hori ez da eztabaida. Zein azoka mota nahi dugun da kontua. Eta hori jendeari galdetuz jakiten da, badira taldeak, kolektiboak, pertsonak, 20 urte hauetan kolaboratzen aritu direnak eta utzi egin dutenak, arrazoiak edozein izanik ere galdetu egin ahal zaie.

Alkatea: bada, berriro diot, izan genuen bilkura horretan gai horiei buruz hitz egin zen.

Joseba Vivanco Retes: bost minutu daramatzat hitz egiten eta badirudi lorontziari ari natzaiola.

Alkatea: Jende gehiago egon ahal zitekeela? Baina egon zen jendea egon zen.

Joseba Vivanco Retes: esaten ari naizena zera da, ez dakit bandoan ipintzen duen, erdi aroko azokaren antolaketa ipiniko zuen. Hor ez du ez gogoetarik ez ezer ipintzen, eta ez da bilkura bat, berriro diot, pixkanaka jorratu eta eginez joan eta bilkurak izan haiekin, besteekin eta hangoekin, guk ere iritzia emango dugu, zuek iritzia emango duzue, besteek iritzia emango dute eta iritzi guztien artean ondorioren bat ateratzen saiatuko gara. Baina bestela, taberna batean elkartu gaitzke hemen gaudenok eta azokari buruz hitz egingo dugu bihar arte, eta astebate egon gaitzke, eta bakoitza gauza batekin. Zerbaiterako balio al du? Ez, zerbaiterako balio al du lehengo egunekoak? Ezta ere. Errealista ez delako.

Alkatea: proposatzen dituzun bilkuren balio bera izan dezake.

Inmaculada Vivanco Retes: nik uste dut badela errealista...

Joseba Vivanco Retes: bikain Iñigo, bada orduan begira, Plan Nagusia, Plan Nagusia egin behar dugula bilkura bakarrean egin dezakegu. Daukagun bilkura batean jendea deitu eta bilkura bakarrean aurrera egiten dugu. Nondik nahi dugu Artziniega joatea? Handik, segi.

Alkatea: esaten dizudana da duela 15 egun egin zen bilkurak eta zuk proposatzen dituzunek balio bera izan dezaketela.

Joseba Vivanco Retes: bada horrela dela pentsatzen baduzue, orduan oinarritik abiatzen gara, arazoari aurre egiteko ikuspegi ezberdinak ditugu abiapuntuan.

Inmaculada Vivanco Retes: ikuspegi ezberdinak daude, zure errealitatea da. Nik berdina pentsatzen dut. Nik hori ikusten dut, eta 2008az geroztik bilkura asko eta asko daramatzat azokaren gaiarekin, bilkura asko azokaren gaiarekin.

Joseba Vivanco Retes: azoka antolatzeko.

Inmaculada Vivanco Retes: eta oraintxe bertan, antolatzea dagokit...



Joseba Vivanco Retes: azoka antolatzeke, eta gogoeta egiteko Inma, zenbat?

Inmaculada Vivanco Retes: eta gogoeta egiteko, eta bere garaian bozketa egin zenean, zergatik azaldu ziren 40 elkarte, kolektibo, partikular bozkatzera? eta gero desagertu egin dira talde horiek guztiak. Bozketa egin zen egunean baino ez ziren joan. Zergatik? Bada, haiek jakingo dute.

Joseba Vivanco Retes: ez dezagun historiaurrera jo Inma.

Inmaculada Vivanco Retes: ez noa historiaurrera.

Joseba Vivanco Retes: Zenbat denbora daramate tabernek egiten? Zenbat urte daramatzate?

Inmaculada Vivanco Retes: nik berriro ñabartzen dut nik ikusten dudan errealitatea dela.

Joseba Vivanco Retes: Zenbat urte daramatzate tabernek?

Inmaculada Vivanco Retes: 2012az geroztik. Era berean, esan dezaket, galdetu duzunez ea zer egingo den, 2012an batzordean erabaki zen azoka bertan behera utziko zela, eta merkatariak hala egingo zutela esan zuten.

Joseba Vivanco Retes: are gehiago, gogorarazi egingo dizut buruan bainuen hori, 2012ko batzordea, Alkatea iritsi zen eta erdi aroko azoka antolatzeke inor ez dagoenez erdi aroko azoka kentzea proposatu zuen, eta euro bat ere ez zen eman. Bilkura hartan nik proposatu nuen, itxaron! izan ere, bat-batean hartu eta bilkurara inor etorri ez denez kendu egiten badugu bada itxaron dezagun apur bat, izan ere, agian norbaitek, antolatzen ez dela ikusten duenean, agian antolatu egiten du. Halaxe gertatu zen. Eta tabernek esan zuten, eta taberna bateko pertsona bat iritsi zen azkenean, hartu zutenean eta esan zuen "pentsatzen genuen ez zenutela hau egingo" eta horregatik hartu genuen, zuek berriro ez zenutela hartuko pentsatzen genuelako".

Inmaculada Vivanco Retes: horretarako eman zen denbora bat inork hartu zezan...

Joseba Vivanco Retes: baina tabernak epea amaitzen zen azken eguneko azken segundora arte egon ziren zain. Eta orduan esan zuten "azkenean zuek hartuko zenutela pentsatzen genuen, eta egiatan ari zinetela ikusi dugunez..."

Inmaculada Vivanco Retes: eta juxtu-juxtu hartu zuten. Esan nahi dudana da erabaki hori hartu zela. Kasu honetan horretara iritsiz gero, balioetsi egin beharko da, Gobernu Batzarrean, edo Batzordean edo dena delakoan.

Joseba Vivanco Retes: baina nahikoa denbora izan dugu, bost edo sei urte...

Inmaculada Vivanco Retes: baina nik berriro azpimarratzen dut, berriro diot, nire ustez, nire errealitatea hori da, eta tira, eta ez diezadazu esan 100 bilkura egin arren beste ezer aurkituko duzunik.

Joseba Vivanco Retes: beno, bada, gure iritzia beste bat da, eta erdi aroko azokarekin urtero mihia kanpoan dugula etortzen gara, bada agian aurten inork ez du egin nahi, eta ea orduan zein erabaki hartzen den Udaletik. Esango da "aizu ez, inork interesik ez duenez, kendu egingo dugu". Bada festak ere bai, izan ere, martxa honetan festak, edozein urtetan gertatuko da inork ez antolatzea, bada kendu egingo dugu. Tira, segi, txapela buruan eta ibili munduan.

Alkatea: edozein modutan gauza bat, aipatu duzue ez dela diru kontua, baina azokako partida murriztea proposatzea ez da haren alde egitea hain zuzen.

Joseba Vivanco Retes: tira, izan ere, egin beharko dugu... niri berdin zait 40.000 euro bideratzea gauza bera egiten jarraitzen badugu. Eman diezaiozun 40.000 euro antolatzen duenari, tabernei, Udalak ipiniko du dirua, antola dezatela eta kito. Eta ekar ditzakete jautzilaria, futbol-kromoak sal ditzakete, nahi dutena. Oso azoka ona egin dezakegu, eta jautzika eta hegan dabilzan ekitaldiak. Eta? Baina hori al da nahi dugun azoka? Hori da egiaz nahi dugun azoka? Eztabaidatzera ere ez gara eseri eta. Hori ere ez dugu egin. Has gaitezen hastapenetik. Zer nolako azoka nahi dugun eta gero esango dugu, 6.000, 12.000 edo 40.000 euro dira, horren alde



egin baitugu. Aurrera. Baina lehendabizi oinarria.

Alkatea: bai, baina egia da eguraldia edozein delarik ere jendea etorri egiten dela oraindik. Azkenean, lehen aipatu duguna da apur bat. Azoka erreferentzia bat da.

Joseba Vivanco Retes: eta 1 formula ekarri eta 100.000 badatoz. 1 formula ekarri nahi dugu? Bada auskalo, agian bai.

Alkatea, zuk Arkaitz, zer diozu? Galdetuko dugu jendea etorri zein ez.

Arkaitz San Jose Martinez: Erdi aroko azokaren helburua jendea Artziniegara etortzea da? Hona zertarako? Zenbat eta zertarako?

Alkatea: Ez al da ekitaldi garrantzitsu bat udalerrira sustatzeko?

Arkaitz San Jose Martinez: Zer sustatzeko?

Alkatea: jendea etorri eta udalerrira ezagut dezan.

Arkaitz San Jose Martinez: bai.

Alkatea: garrantzitsua da. Orduan helburuetako bat jendea etortzea da, ezta?

Arkaitz San Jose Martinez: jendearen desenkantua alde batetik dago, eta jendea etortzen den ala ez beste batetik. Izan ere, nahi duguna jendea etortzea bada, zuk esan duzun moduan, egin dezagun Balmasedan bezala. Zergatik dago jendea nekaturik? Oso inplikaturik egon den jendea? Bakoitzak bere arrazoiak izango ditu ziurrenik, baina ziur ez duela zerikusirik jende asko ala gutxi etortzearekin. Azokan parte hartu izan duen jendea nola sentitzen den, horrekin izango du zerikusia. Eta esan dut, ziurrenik ez da gauza bera izango museoko elkarte hasi zenean merkatariarekin. Helburuak ziurrenera oso ezberdinak izango dira.

Alkatea: jakina, helburuak oso ezberdinak dira, are datak ere baldintza dezake norbaiten iritzia. Ekainean egitea, festetan egitea, edo festetatik kanpora ateratzea.

Arkaitz San Jose Martinez: agian, jendeak berriro ilusioa izan dezan, nire ustez hori baita falta dena, azokarekiko ilusioa, eta jendeak ilusioa izan dezan zer behar den ikusi behar da. Baina bereizten duena, Artziniegako azoka beste batzuekin bereizten duena ziurrenera jendeak azokarekin ipintzen zuen ilusio hori da. Eta ilusioa ez dago 5.000 edo 6.000 pertsona etortzearen baitan, ilusioa azoka horretan jendea parte hartzen ari denean ikusten da. Horretan erreparatu behar dugu. Izan ere, hemengo jendeak pozik egiten badu, horrek eragina izango du eta jendea etorri egingo da. Hori da nik uste dudana, eta uste dut jendeak askoz ere gehiago egiten diola muzin azokari hura antolatzeke prozesuan azoka-egunean baino. Uste dut jende askok egun horretan, Artziniegan delako eta egun horretan Artziniegan egiten delako harrotasunez, azkenik parte hartu egiten duela, nahiz eta denbora askoan esan, nik aurten ez, aurten ziur ezetz, aurten ziur ezetz. Uste dut desilusioa dela. Baina lehen Inmak esan duen moduan, nire iritzia da.

Alkatea: bakoitzak bere arrazoiak izango ditu.

Joseba Vivanco Retes: uste dut Arkaitzek nik baino hobeto laburtu duela, hogeituz hitz egiten aritu naizenean.

Arkaitz San Jose Martinez: azalpen bat. Esan duzu azokako aurrekontuak murriztu egin nahi ditugula. Guk iazkoa mantentzea planteatu dugu eta horren inguruan gogoeta egitea.

Alkatea: bai, baina gutxiago.

Arkaitz San Jose Martinez: gutxiago ez. 2017an bezala. Aurten 2.000 euro gehiago ipintzea aipatu duzue, 8.900 euro. Guk esaten genuen gogoeta egin behar dela, izan ere, 2015ean 6.900 euroko gastua, 2016an 9.000 euroko gastua, 2017an 12.130 euroko gastua, joera horrekin...

Alkatea: Aldunditik lortu ditugun 3.000 euroekin.

Arkaitz San Jose Martinez: bai, bai, ni gastuaz ari naiz. 6.900 euro ipini ahal izan dituzue edo

Ayuntamiento de Artziniega
(Álava)



Artziniegako Udala
(Araba)

12.000 euro.

Alkatea: baina finantzaketa osagarria ere lortu dugu.

Arkaitz San Jose Martinez: guk eztabaidatzea proposatu dugu.

Eta jorratzeko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen saioa, lehenago aipatu egunaren hamaiketan. Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.